



26. Nafarroako eskolarteko bertso paper lehiaketa

Taldeak eta Bertso Kopurua:

1. LH 3 eta 4:
 - Bi kopla edo bertso bat.
2. LH 5 eta 6:
 - Lau kopla edo bi bertso.
3. DBH 1 eta 2:
 - Gutxienez bi bertso eta gehienez hiru.
4. DBH 3 eta 4:
 - Hiru bertso.

Gaiak:

Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako

1. Gaueko 11ak dira eta gaur ere ez duzu deus ikasi. Bihar azterketa daukazu.
2. Zure urtebetetze eguna da. Klasera bizkotxo eraman duzu, baina inork ez du probatu nahi.
3. Oraintxe iritsi zara oportetatik. Mundiala izan da.
4. Zure gurasoek 15 urteko autoa dute eta ez dute aldatzeko asmorik.
5. Itxaroten ari zinen mezua iritsi zaizu.

Lanak aurkezteko epea eta tokia:

Lehiaketa honetako parte hartzaileek 2012ko martxoaren 30eko 14:30ak baino lehen aurkeztu behar dituzte beren lanak Hezkuntza Departamentuko Erregistroan (Santo Domingo Aldapa 8; 31001, Iruñea), Euskara Atalarentzat direla jarriz.

